

GOGORATU

- Datu multzo baten batez bestekoa lortzeko, datu bakoitza bere maiztasun absolutuaz biderkatu behar da, gero biderkadurak batu, eta azkenik, batura zati datu kopurua egin.
- Moda maiztasun absolutu handiena duen datua da.

1. Zenbat liburu irakurri dituzte ikasleek aurtan? Kalkulatu batez bestekoa eta moda.

Liburu kopurua	1	2	3	4	5	6
Maiztasun absolutua	8	3	2	4	2	1

- Batez bestekoa: $8 + 2 \times 3 + \underline{\hspace{2cm}} = \underline{\hspace{2cm}}$

$\underline{\hspace{2cm}} : \underline{\hspace{2cm}} = \underline{\hspace{2cm}}$

- Moda: $\underline{\hspace{2cm}}$

2. Erreparatu zein diren Igorren lehengusu-lehengusinen adinak. Ondoren, kalkulatu adinen batez bestekoa eta moda.

Lehengusu-lehengusinen adinak	11	12	14
Maiztasun absolutua	2	3	1

- Batez bestekoa: $11 \times 2 + \underline{\hspace{2cm}} = \underline{\hspace{2cm}}$

$\underline{\hspace{2cm}} : \underline{\hspace{2cm}} = \underline{\hspace{2cm}}$

- Moda: $\underline{\hspace{2cm}}$

3. Erreparatu zenbat kilo fruta jan dituen familia batek 12 astean, eta kalkulatuz batez bestekoa eta moda.

Fruta-kiloak	4	5	6	7
Maiztasun absolutua	1	3	3	1

- Batez bestekoa:

- Moda:

GOGORATU


- Datu kopuru bakoitia duen multzo ordenatu baten mediana erdian dagoen datua da.
- Datu kopuru bikoitia duen multzo ordenatu baten mediana erdiko bi datuen batez bestekoa da.

1. Kasu bakoitzean, lortu mediana.



16m 20m 30m 18m 5m

- Altuerak ordenatuta : _____
- Datu kopurua : _____
- Mediana : _____



Liburuen prezioak : 25€, 16€, 23€, 20€, 22€, 18€

- Prezioak ordenatuta : _____
- Datu kopurua : _____
- Mediana : _____

2. Irakurri eta ebatzi.

Estazio meteorologiko batean, tenperatura hauek erregistratu dira egun jakin batean: 20,1°C; 19,2°C; 19,9°C; 20,6°C eta 18,7°C.

Zein da tenperatura horien mediana? _____